

Monumentu multzoen babesa lurralde antolaketaren ikuspegitik Euskal Autonomia Erkidegoan

(Protection of monuments from the point of view of
territorial planning in the Basque Autonomous Community)

Eizmendi Galarza, Imanole I.
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia – Miraconcha, 48
20007 Donostia

BIBLID [1137-442X (2001), 8; 167-187]

Behin Espainiar Konstituzioaren ondorioz Kultura Ondarearen babes eskumena ia bere osotasunean Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdaturik, honek 7/1990, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea onetsi du, beste gauza batzuren artean Monumentu Multzoen babesa zehaztuz, Espainiar Legeak 1985. urtean lehendabizikoz egin zuen bezala. Lurralde Antolaketaren eskuduntzari dagokionez, hau ere Euskal Autonomi Erkidegoarena izanik, honek aurrikitako tresnen artean Lurraldearekiko Alor-Egitamuk nabarmentzen dira (oraindik garatzeko), nahiz eta Lurralde Antolaketarako Artezpideetan arau afekzio bat finkatzen duen kultura ondareari dagokionean. Kultura Ondarea babesteko, eta zehazki Monumentu Multzoak, oso egokia litzateke honi buruzko legeria eta Lurralde Antolaketa Tresnen arteko harremanak garatzea, era berean, Monumentu Multzoen edukia zabalduz.

Giltz-Hitzak: Monumentua / Monumentu multzoa. Kultura ondarea. Babesa. Lurralde antolaketa / Lurralde antolaketa tresnak.

Una vez que en virtud de la Constitución Española la competencia sobre protección del Patrimonio Cultural fue transferida casi en su totalidad a la Comunidad Autónoma del País Vasco, ésta aprobó en su día la Ley 7/1990 sobre el Patrimonio Cultural Vasco, precisando entre otras cosas la protección de los Conjuntos Monumentales, tal y como antes había hecho la correspondiente ley española de 1985. En lo que respecta a la competencia sobre Ordenación del Territorio, en manos también de la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre los instrumentos previstos destacan los Planes Territoriales Sectoriales (a desarrollar), o una afección de reglas que se establece en las Directrices de Ordenación Territorial en lo que se refiere al patrimonio cultural. Para la protección del Patrimonio Cultural, y concretamente los Conjuntos Monumentales, sería muy conveniente desarrollar las relaciones entre la legislación al respecto y los Instrumentos de Ordenación del Territorio, ampliando al mismo tiempo el contenido de los Conjuntos Monumentales.

Palabras Clave: Monumento / Conjunto monumental. Patrimonio cultural. Protección. Ordenación territorial / Instrumentos de ordenación del territorio.

Une fois que, en vertu de la Constitution Espagnole, la compétence sur la protection du Patrimoine Culturel fut transférée presque totalement à la Communauté Autonome du Pays Basque, celle-ci adopta en son temps la Loi 7/1990 sur le Patrimoine Culturel Basque, en déterminant entre autres la protection des Ensembles Monumentaux, tel que l'avait précisé la loi espagnole correspondante de 1985. En ce qui concerne la compétence sur l'Aménagement du Territoire, également entre les mains de la Communauté Autonome du Pays Basque, parmi les instruments prévus se détachent les Plans Territoriaux Sectoriels (à développer), ou une affectation de règles qui apparaissent dans les Directives de l'Aménagement Territorial dans lesquelles on se réfère au patrimoine culturel. Pour la protection du Patrimoine Culturel, et plus précisément les Ensembles Monumentaux, il conviendrait de développer les relations entre la législation s'y référant et les Instruments de l'Aménagement du Territoire, en amplifiant en même temps le contenu des Ensembles Monumentaux.

Mots Clés: Monument/Ensemble monumental. Patrimoine culturel. Protection. Aménagement du territoire/Instruments d'Aménagement du territoire.

HITZAURREA

Eusko Ikaskuntzak 1997-98 ekitaldietarako antolatutako "Lurralde Antolakuntza eta Kudeaketa" ikastaroaren barne burutu beharreko lanaren barruan, azkenik, Monumentu Multzoen babesa aztertzea izango da hurrengo orri hauen helburua.

Lehenik eta behin, egun gai hau erregulatzen duen arauteria osoa aztertzen saiatuko naiz, kokapen gisa ikastaroaren ardatz izan den lurralde antolaketaren gaiari ere erreferentzia eginez geroago, Monumentu Multzoen legezko izaera bere osotasunean zehaztu ahal izateko.

Gaiaren objektua definitzen ere saiatuko naiz, ordenamentu juridikoan gaia kokatuz, kultura ondareari buruzko xedapenek duten gailentasuna markatuz, hirigintza eta lurralde antolaketa tresnen gainetik eta hauen edukiak mugatuz. Kultura Ondarea eta Lurralde Antolaketa eta Hirigintza alorren arteko harremanak azalduko dira.

Aurreko paragrafoetan azaldukoetatik erator daitekeenez, Monumentu Multzoen barruan ondasun higiezinak duten babesari buruzko ikerketa bat egingo da Lurralde Antolaketari dagokion ikuspuntutik, babes teknika erabiliena dela hau gogoraraziz.

Azkenik, Monumentu Multzoek Frantzia bezalako beste herrialde batetan izan duten babesa aipatuko da.

1. ESKUMENEN ZEHAZTAPENA

Gai honi ekin ahal izateko, lehenik eta behin bere ingurune juridikoa zehaztu beharra dago. Izan ere, 1978ko abenduaren 27ko Espainiar Konstituzioa indarrean jarri baino lehen ez zegoen ez Euskal Autonomi Erkidegorik, ez eta honek osatzen duen esparruan inolako eskuduntza araugile autonomorik, ez Kultur Ondareari dagokionean eta are gutxiago hirigintzari dagokionean.

Aipatu Espainiar Konstituzioak bere 148. Eta 149. artikuluetan eskuduntza banaketa zehaztuko du Estatu eta Autonomi Erkidegoen artean arlo guztiei dagokienean. Arlo hau garatzeko interesgarri gertatzen diren gaien artean honako puntu hauek nabarmendu behar dira:

"148.1 Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en las siguientes materias:

3ª Ordenación del territorio, urbanismo y vivienda.

16ª Patrimonio monumental de interés de la Comunidad Autónoma."

Artikulo honetan, hurrengoaren moduan, badago gai honekin loturiko beste arlo batzuetaz egiten den zehaztapenik (ingurugiroa, zenbait azpiegitura, etab...), baina gaiaren hildoa zuzen jarraitzearen eta bestelako zertzeladatan ez galtzearen gaiaren edukin gordina azaltzen duten puntuak soilik agertuko dira, hala nola:

"149.1. El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

28ª Defensa del patrimonio cultural, artístico y monumental español contra la exportación y la expoliación; museos, bibliotecas y archivos de titularidad estatal, sin perjuicio de su gestión por parte de las Comunidades Autónomas."

Azalduko artikulo hauen arabera, ondorioz, Estatuaren eskuduntzakoa izango da kultura, arte eta monumentu espainiarren ondarearen babesa esportazio eta espolioaren aurka, orokorrean Autonomi Erkidego bakoitzarentzat interesgarri den monumentu ondareari buruz-

ko eskuduntza Autonomi Erkidegoek har dezaketelarik, lurralde antolaketa, hirigintza eta etxebizitza alorretan bezala. Eskuduntza hauek, ordea, Autonomi Erkidego bakoitzak Konstituzio honen menpe burutzen dituen Autonomi Estatutuen arabera izango dira, hasiera batek oso garrantzitsu gertatuz Konstituzioak berak 149.3. artikuluan aurrikusia, Autonomi Erkidegoen onuratan eman litezkeen eskuduntza eskualdaketak edo gehikuntzak alde batera utziz:

“149.3. Las materias no atribuidas expresamente al Estado por esta Constitución podrán corresponder a las Comunidades Autónomas, en virtud de sus respectivos Estatutos. La competencia sobre las materias que no se hayan asumido por los Estatutos de Autonomía corresponderá al Estado, cuyas normas prevalecerán, en caso de conflicto, sobre las de las Comunidades Autónomas en todo lo que no esté atribuido a la exclusiva competencia de éstas. El derecho estatal será, en todo caso, supletorio del derecho de las Comunidades Autónomas.”

Behin Konstituzioaren xedapen hoi berri izanik, lan honen eduki diren gai hauei buruz Euskal Autonomi Erkidegoko Autonomi Estatutuaren zehaztapenen azterketa dator. 3/1979, abenduaren 18ko Lege Organikoz onetsiriko Euskal Autonomi Erkidegorako Autonomi Estatutuak honako hau dio:

“10. Euskal Autonomi Erkidegoak ondorengo materia hauetan du eskuduntza osoa:

19. Historia, artea, monumentu, arkeologia eta zientzia ondarean, Estatuak aipatu ondarearen esportazio eta “espoliazioa”- ren aurka ezartzen dituen arau eta obligazioen bete beharra Autonomi Erkidegoak bere gain hartuz.

31. Lurralde eta itsas-inguruaren antolaketan, hirigintzan eta etxebizitzan.”

Hona iritsi izanik, hemen ere, eta kontutan izan da Autonomi Estatutu honek eskuduntzari dagokionean eginiko banaketa (hala nola, Euskal Autonomi Erkidegoaren eskuduntza osoa, Estatuaren oinarriko legeriaren lege garapen eta exekuzio eskuduntza eta Estatuaren legeriaren exekuzio eskuduntza, beti ere, Autonomi Erkidegoaren esparruan) Konstituzioak burututako gai sailkapena dela eta, lan honen edukia osatzen duten gaiak eragiten dituzten hainbat alor daudela ezin da ahaztu Estatuaren artikulua desberdinetan, nahiz eta hemen aipatu ere ez diren egingo gaiaren mamian gehiago sakontzearen.

Bestalde, Euskal Autonomi Erkidegoaren beste berezitasun bat ere aipatu beharra dago, hau da, Lurralde Historikoen izaera. Euskal Autonomi Erkidegoak bere antolaketa badu ere, honen barruan bera osatzen duten hiru lurraldeek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak) beste Autonomi Erkidegoetako probintziek ez bezalako izaera agertzen dute eskuduntza alorrean, haiek baino protagonismo haundiagoa erakutsiz.

1983ko azaroaren 25eko Eusko Legebiltzarreko Lege batek, LTH famatuak, zehazten ditu Euskal Autonomi Erkidegoaren eta Lurralde Historikoen arteko eskuduntza banaketak, hemen ere Autonomi Estatutuak eginiko sailkapenari jarraituz, Lurralde Historikoen eskuduntza osoa, Erakunde Amankomunek emaniko arauen garapen eta exekuzio eskuduntza eta Erakunde Amankomunen legeriaren exekuzio eskuduntza desberdinez, Lurralde Historiko bakoitzaren esparruaren barruan (7 d. puntua alde batera utziz).

Gauzak horrela, hona hemen, gure gaiei buruz LTH-k xedatua:

“7.b) Lurralde Historikoei dagokie Erakunde Amankomunek emandako arauen garapen eta exekuzioa honako materia hauetan:

5. Historia, Arte, Monumentu eta Arkeologia Ondarearen iraupen, hobetze, berritze edota, hala dagokionean, “indusketa”.

c) Lurralde Historikoei dagokie beren lurraldeen esparruan Erakunde Amankomunen exekuzioa honako materia hauetan:

5. Hirigintza alorrean, Lurralde Historikoei dagokie ekimena, idazketa, exekuzioa, kudeaketa, fiskalizaio eta informazioa, beraien aplikazio esparruaren barne goragoko mailako planeamenduak ezarritako zehaztapenen garapenean Lurralde Antolaketa eta Hirigintza tresnen onespeneren moduan, Legeak beste erakunde publiko eta hirigintza organoei emandako eskuduntzen kalterik gabe.”

Puntu honetan ere, besteetan egin den bezala, nahiz eta beste alor batzuk gai honetan eragin nabarmena dutela adierazi, hauen zehaztapenik ez da egingo, lehen hainbat aldiz adierazitako arrazoiagatik.

...

Hala eta guztiz, laburpen gisa, hemen transkribatutako xedapenen ondorio bezala, eta Kultura Ondarearen alorrari soilik eginez erreferentzia, ondorengo hau esan beharra dago:

– Esportazio eta espolioaren aurkako babesaren arloa kenduz, Kultura Ondareari buruzko eskuduntza osoa, printzipioz berak hartzen duen esparru geografikoan, Euskal Autonomi Erkidegoarena dela.

– Kultura Ondareari buruzko Euskal Autonomi Erkidegoaren eskuduntzak Erakunde Amankomun eta Lurralde Historikoen artean banatuta aurkitzen direla. Euskal Autonomi Erkidegoko Erakunde Amankomunek dute eskuduntza legegilea orokorrean, Lurralde Historikoen erakundeek izanik Erkidegoko legeen garapen eta exekuzio eskuduntza Kultura Ondarearen iraupen, hobetze, berritze edota indusketa alorrean.

Lurralde Antolaketaren eremuari dagokionean, berriz:

– Euskal Autonomi Erkidegoak duela eskuduntza osoa gai honen garapenean, bere esparru geografikoan.

– LTH-aren 7.c).5. puntuaren arabera, hirigintza alorrean Euskal Autonomi Erkidegoko Erakunde Amankomunek emandako legeriaren exekuzio eremuan izango dutela eskuduntza Lurralde Historikoen erakundeek, hain zuzen ere, plangintzaren bilakaeraren hainbat puntutan eta goragoko mailako planeamenduaren garapenean lurralde antolaketa eta hirigintza tresnen onespeneran.

2. KULTURA ONDAREAREN LEGEZKO ERREGULAZIOA

Gorago aipatutako eskuduntza zehaztapenak gainditu ondoren, Eusko Legebiltzarrak 1990eko uztailaren 3ko, Kultura Ondareari buruzko Legea onetsi zuen¹.

Lege honen atalak honako hauek dira:

- Zioen adierazpena.
- I. Idazpurua: Erabaki nagusiak. 9 artikuloz osatua.
- II. Idazpurua: Kultur Ondasunez².

1. 7/1990, uztailaren 3ko, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea Eusko Legebiltzarren onesterakoan izandako gora-beherak legegintzaldi horri buruz Eusko Legebiltzarrak berak argitaratutako liburuetan aurki daitezke.

2. “Kultur ondasunez” edo “kultura ondarea” kontzeptu oso zabalak dira, gauzak horrela kontutan edukitzeak dira Auzitegi Gorenak emandako 17/1991 Epaia, 1991ko urtarrilaren 31ean eta besteak beste Juan Manuel Alegre Villa, “Evolución y régimen jurídico del Patrimonio Histórico”, Colección Análisis y Documentos– en, Ministerio de Cultura, 1994, 250-330 orr.

- I. Atalburua: Zermugatutako Kultur Ondasunez. 6 artikuloz osatua.
- II. Atalburua: Zerrendatutako Ondasunez. 4 artikuloz osatuz.
- III. Idazpurua: Babes-Jaurpideaz.
 - I. Atalburua: Jaurpide Nagusiaz. 8 artikuloz osatua.
 - II. Atalburua: Higiezinazko Ondasunez. 9 artikuloz osatua.
 - III. Atalburua: Ondasun Higigarriez. 6 artikuloz osatua.
 - IV. Atalburua: Arkeologi Ondareaz. 8 artikuloz osatua.
 - V. Atalburua: Etnografi Ondareaz. 4 artikuloz osatua.
 - VI. Atalburua: Agirizko Ondareaz. 11 artikuloz osatua.
 - VII. Atalburua: Bibliografi Ondareaz. 7 artikuloz osatua.
- IV. Idazpurua: Gordetegi eta Liburutegi Zerbitzuez Erakustetxez.
 - I. Atalburua: Gordetegi Zerbitzuez. 9 artikuloz osatua.
 - II. Atalburua: Liburutegiez. 7 artikuloz osatua.
 - III. Atalburua: Erakustetxez. 20 artikuloz osatua.
- V. Idazpurua: Sustapen Neurriez. 6 artikuloz osatua.
- VI. Idazpurua: Zigorrak. 3 artikuloz osatua.
- 5 Erabaki Gehigarri.
- 3 Aldi Baterako Erabaki.
- Indargabetzeko Erabakia.
- 2 Azken Erabaki.

Lege honen antolaketa-tatik bere edukia, egitura eta beste hainbat nondik-norako eratorzen dira, nolabait bere eduki osoa zehaztu gabe berau argi azaltzen dutenak.

3. IKERLAN HONEN OBJEKUAREN ZEHAZTAPENA

Bestalde, gero gai hau jorrazterakoan hainbat erreferentzia egingo badira ere, hona hemen 7/1990, uztailaren 7ko, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen artikuloko batzuk zehaztu eta azaltzekotan aukeratutak hasera batean:

“1.- Artikulua.- Lege honek, Autonomi Estatutuko 10. ataleko 17, 19 eta 20 puntuetan Autonomi Elkarteari izendatzen zaion bakarreango aginpidearen arauera, euskal herriaren kultur ondarea aldeztua, aberastea eta babestea, eta horren zabalkunde eta suztepen egitea du xede. Lege honen erabiltze-eremua Euskal Herriko Autonomi Elkarteok lurraldea da.”

“2.- Artikulua.- 2. Lege honen ondorio-tarako, euskal herriko kultur ondarea osatzen duten eta zermugatu eta zerrendatu daitezkeen ondasunak, honako maila hauetakoren baten sailkatu behar dira:

- a) Monumentua: honelakotzat, banan-banan hartuta, nolabaiteko kultura- interesa duten ondasun higigarri zein higiezinako guztiak jotzen dira.
- b) Monumentu Multzoa: honelakotzat, kultura-batasuna osatzen duten ondasun higigarri zein higiezinakoen multzo guztiak jotzen dira.
- c) Kultur gunea: honelakotzat, iraganeko izan eta euskal herriaren kultura eta bizikera-adierazgarri nabarierie atxikiriko toki, ekintza, sorkuntza, sinismen, tradizio eta gertakariek osatutakoa jotzen da.”

Azpitarraturiko Monumentu Multzoa izaerak gerora bere babes erregimenean hainbat ezberdintasun edo bereiztasun aurkeztea izango du ondorio. Horren adierazgarri bezala, 28.2, 33 eta 36.1 artikulokoak aipatu behar, esate baterako.

7/1990, uztailaren 3ko, Kultura Ondareari buruzko Legearen atalkako antolaketan erakusten den moduan, ordea, babes araupidearen barne gauzatzen den beste sailkapen bat interesgarri gertatzen da gai honen funtsa kokatzeko orduan: ondasun higiezin eta higigarrien arteko desberdintasuna.

Aipatu Kultura Ondareari buruzko Legeak ondasun higigarri eta higiezin arteko desberdintasun juridikoa zertan datzan ez duenez agertzen, legeriaren aplikagarritasun printzipioak kontutan hartuz Kode Zibilak dioenean oinarritu beharko da honen zehaztapena.

1889ko Kode Zibilak, zeinaren aplikagarritasuna zehaztasun batzuk alde batetara utziz Estatu osoarikoa baita gabeko, bere 333. eta ondorengo bi artikuluetan honako desberdintasun juridikoa ezartzen du ondasun higigarri eta higiezin artean (artikulok bere osotasunean agertzen dira, sarritan kontutan hartzen ez diren kasu berezien izaera nolabait agertzeko):

“Art. 333. Todas las cosas que son o pueden ser objeto de apropiación se consideran como bienes muebles o inmuebles.

Art. 334. Son bienes inmuebles:

1º Las tierras, edificios, caminos y construcciones de todo género adheridas al suelo.

2º Los árboles y plantas y los frutos pendientes mientras estuvieren unidos a la tierra o formaren parte integrante de un inmueble.

3º Todo lo que esté unido a un inmueble de una manera fija, de suerte que no pueda separarse de él sin quebrantamiento de la materia o deterioro del objeto.

4º Las estatuas, relieves, pinturas u otros objetos de uso u ornamentación, colocados en edificios o heredades por el dueño del inmueble en tal forma que revele el propósito de unirlos de un modo permanente al fundo.

5º las máquinas, vasos, instrumentos o utensilios destinados por el propietario de la finca a la industria o explotación que se realice en un edificio o heredad, y que directamente concurren a satisfacer las necesidades de la explotación misma.

6º Los viveros de animales, palomares, colmenas, estanques de peces o criaderos análogos, cuando el propietario los haya colocado o los conserve con el propósito de mantenerlos unidos a la finca, y formando parte de ella de un modo permanente.

7º Los abonos destinados al cultivo de una heredad, que estén en las tierras donde hayan de utilizarse.

8º Las minas, canteras y escoriales, mientras su materia permanece unida al yacimiento, y las aguas vivas o estancadas.

9º Los diques y construcciones que, aun cuando sean flotantes, estén destinados por su objeto y condiciones a permanecer en un punto fijo de un río, lago o costa.

10º Las concesiones administrativas de obras públicas y las servidumbres y demás derechos reales sobre bienes inmuebles.

Art. 335. Se reputan bienes muebles los susceptibles de apropiación no comprendidos en el capítulo anterior, y en general, todos los que se pueden transportar de un punto a otro sin menoscabo de la cosa inmueble a que estuvieren unidos.”

Baina Babes Erregimenaz 7/1990 Legearen esparruari dagokion eremuan, behin erregimen orokorra zehaztu ondorenean ez da ondasun higiezin eta higigarrien arteko desberdintasunari buruzko sailkapena bakarra, IV. atalburuan arkeologia ondarea zehazten da, etnografia ondareak, etab... jarraituz ondorenean.

16/1985, ekainaren 25eko Espainiar Historia Ondarearen Legeak, bere izendapenean Historia Ondarea izendapena erabiltzen badu, kontzeptu zabal bat markatuz, gero bere babes erregimena zehazterakoan, honek ere ondasunen arteko desberdintasunak kontutan hartuz hainbat babes erregimen desberdinu eta agertzen ditu, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak ondoren egingo duen moduan. Hala eta guztiz, hemen zerbait aipatzekotan, Euskal Autonomi Erkidegoko Legearen izendapenaren zabaltasuna oraindik espainiarrarena

baino haundiagoa dela azaldu behar, "Kultura" azepzioaren barruan sar liteken eremua historiatik at dagoena ere izan litekelako³.

Kultura Ondarearen barruan, Monumentu Multzoak bereizi eta Lurralde Antolaketa-aren eremuan kontutan hartzekotan, ondasun higiezi-nei buruz soilik ihardun ahal izango da lan honetan, lurraldean eraginik ez dutelako, eta hare gutxiago bere antolaketak eta kudeaketak, ondasun higigarriek. Halere, lehen aipatu den bezala, beste alor batzuk ere zehazten dira 7/1990, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legean lurraldearen gain eragiten dutenak: arkeologia ondarea (eta Legeak ondare arkeologikoaren babes erregimenaren barne zenbait artikulotan aipatuaren sistematikoki xedatzen ez duen *paleontologi ondarea*).

Higiezi-zen Monumentu Multzoei dagokienean 7/1990, Legeak espreski ezer ez badio ere, arkeologi izaeraz at gelditzen den beste higiezi-zen multzoa arkitektura izaerako ondasunek osatuko dutela erartzen da testuingurutik.

Ondorioz, izenburuarekin bat etorri eta nolabait Lurralde Antolaketak gaia alde batetara utzi gabe, honako hau izango da ikerlanaren ardatza: ondasun higiezi-zen osaturiko Monumentu Multzoen babesa.

4. ONDASUN HIGIEZINEN MONUMENTU MULTZOEN BABESA

4.1. Europako Historia

II. mundu gerratea amaitu eta ondorengo zabalkundearen azkena iristearrekin batipat, antzina industrializatutako herrialdeetan hiri hazkuntza gelditu eta murrizteak, lehen eraikitako hiria kontutan hartzea ekarri zuen ondorio bezala, hau behin-betikotzat hartuz eta etorkizun urbil bateko beharrezko ingurune bilakatuz. Horrela, berritzeak baino eraberritzeak garrantzia haundiagoa hartuko du.

Hainbat programa eta lanei ekingo zaio ordena logiko eta kronologiko batean Monumentu Multzo zehatz batzuen babesak izango duen lehentasuna:

1) GUNE HISTORIKOEN BABESA

XIX. mendeko bigarren erdialdean gauzaturiko hiri kudeaketa sistemak Gune Historiko eta auzoen artean ez zuen desberdintasunik egiten. Monumentu soilak hartzen ziren kontutan, hauek oinarritzat hartuz hiri berriari itxura hori ematen saiatuz.

Sitte- rekin Monumentu soiletatik ez ezik antzinako giroa duten Monumentu Multzoetarako joera nabarmenduko da, eta Arkitekturan Mugimendu Modernoa deritzonak aurreko ereduak gogor salatu eta industriaurreko gune hauek berriz baloratuko ditu. Camillo Sitte-k zehazki, gehienik ere ertaroko hiriak zituen gogoko, funtzio, konposaketa asimetriko eta esparruen eta eraikinen arteko jerarkiaren arabera antolatutako hiri bezala. Hiri berrietan lehengo hirien balioak sartzeko bideak ere proposatu zituen⁴.

3. 16/1985, Espainiar Historia Ondarearen Legeak bere Babes Erregimenaren barruan egiten duen sailkapena, kontutan hartuz, nolabait gero 7/1990 Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak erabiltzen duena ulertzeko, baliagarria da Juan Manuel Alegre Villa, "Evolución y régimen jurídico del Patrimonio Histórico", Colección Análisis y Documentos- en, Ministerio de Cultura, 1994, 330-406 orr.

4. Leonardo Benévolo, "historia de la arquitectura moderna", Editorial Gustavo Gili, S.A., 1994ean, 379-382 orr.

Le Corbusier- ek galdutako balio hoiak hiri berrian birsartu beharra azalduko du Venecia eredutzat hartuz. Ertaroko eta lehenagokoak diren bideetan oinarritutako komunikabideen garapenak dira egungo hirietako bidesareak honentzat, eta hiriaren hainbat ezaugarri bere historian izandako edo jasandako gertakariek mugatu izan dute, bere esanetan. Hiri bat bere historian zehar gauzaturako lan, lerrokadura eta eraikinek zehazten dute, bere arima erakutsiz. Gauzak horrela, nahiz eraikin bakunak, nahiz multzoak, babestu egin behar dira, beren balio historiko eta arkitektonikoa kontutan hartuz. Halere, babes hau beti interes orokorraren menpe ezartzen du. Eta gainera, bere hiri kontzeptua garatzeko balio duen heinean, monumentu historikoen inguruan hauek gutxiesten dituzten eraikinak eraitsi eta esparru berdeak sortzea proposatzen du⁵.

1928tik 1934ra aztertutako Amsterdam-eko Plan Erregulatuzaileak, lehen aldiz Gune Historiko osoaren babesa geroko garapenaren oinarri bezala ezartzen du.

Lehen adierazi bezala, ordea, II. Mundu Gerratearen ostean plangintza tresna aurrera-koienez orduan hartuko dute kontutan Gune Historikoen babesa, zabalguneen eraldaketatik at utziz eta zaintza berezi batetara mugatuz, nahiz eta oraindik analisi eta ekintzarako metodo zientifikorik ez izan.

Italia izan zen industriaurreko gune gehien mantentzen zuen herrialdea. Beste zenbait herrialdetan, eraikinen tipologia, egituren materia iragankorra eta ondoren beraien hasierako ezaugarriak balio gabetzen zituzten ekintzak pairatutako guneetan hauek mantentzerik ez zen erabaki, Alemaniako gerra osteko berreraikipenean esaterako. Kasu honetan orokorki kaleen lerrokadura, altuera, xede funtzionalak, eraikin tipologia eta egiturak desegin egin ziren eraikin berriak garatuz.

Gaiaren garrantzia ikusirik, 1972. urtean UNESCO- k Europar Kultura Politikei buruzko Gobernuarteko Konferentzian iraupenerako 14 proiektu sustatu zituen eta 1975eko urrian Amsterdam-en deitutako biltzarrean arazo honi buruzko Adierazpen Orokorra aldarrikatu zuen⁶.

Europar legeriek aspaldidanik aurrirakusten badute ere monumentu bezala izendatutako elementuetzat babesa, hau multzo osoei aplikatzea Holandan 1961. urtean posible egiten da, Polonian 1962.ean, Frantzian 1962.ean baita ere, Alemanian Länder desberdinen arabera egoera 1976ko Lege Federal baten bidez koordinatuz, etab.

Espanian 1978. urteko aldaketa politikoa eman arte European jarraitzen zen biderik ez zen eman maila honetan, kalte handiak jasan zituelarik multzoen ondareak.

2) XIX. ETA XX. MENDEKO GUNEEN BABESA

XIX. mendeko bigarren erdialdean buruturiko hiri kudeaketak aldizka kaleruntz ematen zuten fatxadadun eraikinak ordezkatzeko arauteria hartzen zuen kontutan, horrela joan den mendearen amaierako eta honen haserako eraikin baldotsuak galdu egin direlarik.

1960-1970. urteetan, Parisen aurreko pentsamoldea alde batetara uzteari ekin zitzaion, oraintsuagoko eraikinak ere Monumentu izenda daitezkeela eriztean. London eta Estatu Batuetan burututako hainbat esperientziek oraintsu eraikitako egitura erraldoiak babestu eta

5. Le Corbusier, "Principios de Urbanismo (La Carta de Atenas)", Planeta Agostini, 1993an, 103-109 orr.

6. Amsterdamko Ituna.

berrerabiltzeko joera hedatu egin zuten. Gehienbat, ordea, eraikin bakun eta hiri industrialaren erreferentzia bilakaturiko elementuak ziren hauek.

Hiri industrialak, ordea, aurreko hiriarekin alderatuz gero, bere dinamismo eta aldakortasunaz ezagutzen da, multzo hauen babesa lortzeko metodologia desberdina izanik, nahiz eta hiri sarearen analisi eta honen hazkuntza mekanismoaren ulermenean oinarritu. Gai honi buruz lehen analisi bat 1976an Europar Kontseiluak burutuko du, Berlin-en hiri hau zehatz-mehatz aztertuz. Hemen honako hau adierazten da: a) XIX. mendeko eta mende honen haserako zenbait auzo ertaroko guneeetan erabili diren metodologia bera erabiliz babes daitezke; b) bestalde, hirien hainbat ezaugarri aldagaitz direla erizten da, hala nola kale edo lerrokadurak eta etxadiak, hauek babestuko direlarik; c) eraldaketa funtzional bat ematen den kasuetan ezin da sare zaharra berriarekin egokitu, hau egun galdutako gune produktiboetan gertatzen delarik (London eta Rotterdam-eko Docks- ak eta Manhattaneko Piers eta San Francisco-ko Waterfront- ak aipatu behar hemen, kasu hauentzako hainbat proiektu berriztaile proposatu izan direlarik gune hauek berriz erabiliak izan daitezke)⁷. Horrela, industria arkeologia 70. hamarkadaren hasieran erabiltzen hasten den hitz bat da, lehenengo industria egiturak lehenaren ezaugarri bezala irauteraziz eta erabilera berri bat ematea aztertuz ondasun hauentzat, nahiz eta kasu askotan xede hau ez lortu eta gune guztia hartzen duen museo erraldoi eta berezi batetan bilakatu eremu hori.

4.2. Euskal Autonomi Erkidegoak eskeinitako babesa

Arlo honen historia europar esparruan orokortasunez aztertu ondoren, Estatu Espainiarrean eta Euskal Autonomi Erkidegoaren ikerketa juridikoa egitea falta da eremu honetan. Espainiar legeriaren azterketa, Euskal Autonomi Erkidegoaren garapenean eta honen legerian eragin nabaria izango duen gaia den heinean azalduko da.

Monumentuen, beren izaera bakuna soilik kontutan hartuta, babes edo zaintzaren lehen erakuspenak XIX. mendean suertatu baziren ere, XX. mendean garatu da juridikoki arlo hau Estatu Espainiarrean honako arauteria hau gailenduz:

- Ley de Excavaciones y Antigüedades de 1911.
- Ley de Monumentos de 1915.
- Real Decreto Ley de 1926, sobre la Protección y Conservación de la Riqueza Artística.
- Constitución de 1931 (artículo 45).
- Ley de 13 de mayo de 1933, sobre Defensa, Conservación y Acrecentamiento del Patrimonio Histórico-Artístico Nacional.
- Constitución de 1978 (artículo 46).
- Ley del Patrimonio Histórico Español de 25 de junio de 1985.

Horrela, komenigarri erizten da 1978ko Espainiar Konstituzioaren 46. artikulorekin edukia zehaztea:

“46. Los poderes públicos garantizarán la conservación y promoverán el enriquecimiento del patrimonio histórico, cultural y artístico de los pueblos de España y de los bienes que lo integran, cualquiera que sea su régimen jurídico y su titularidad. La Ley penal sancionará los atentados contra este patrimonio.”

7. Leonardo Benévolo, “historia de la arquitectura moderna”, Editorial Gustavo Gili, S.A., 1994ean, 1054-1057 orr.

Bestalde, eta espainiar historiako legeria sakontasunez aztertu gabe, nabarmendu beharrekoa hau da: 16/1985 Espainiar Historia Ondarearen Legeak duen berrikuntzarik garrantzitsuenetakoa, lehen aldiz Multzoak babestea dela. 1933ko Legeak ezarritako ereduak multzoak ez zituen erregulatzen eta, jakina, hirigintzari zegokion arauteria ez zuen elkar lotzen, horrela babes tresna egoki bat sortuz. Lehenengo aldiz, ordea, 1981. urtean prestatu-riko Lege Proiektu batek aurrakusten zuen Multzoen babesa, hirigintza arauteriarekin (*) ere harremanak ezartzen zituelarik, hain zuzen ere, 1976ko Lurzoruaren Legearekin⁸.

Euskal Autonomi Erkidegoaren sorrera, beti ere 1978. urteko Konstituzioaren ondorengo izanik, eta bere lehen lege adierazpena 1990ekoa, arlo honetan lehen pausuak besterik ez direla eman esan behar.

7/1990, uztailaren 3ko, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen edukinak, lehen adierazi moduan, Monumentu Multzoen babesa jasotzen du eta baita hau hirigintza arauteriarekin⁹ harremanetan jarri ere, baina erlazio hauek geroagoko puntu batean sakonduko dira.

Ikusten den bezala, Espainiar Estatuaren zein Euskal Erkidegoaren eremuan Multzoen babesa eta gai honetan hirigintza arauteriarekin ezartzen den erlazioa oso gauza berria dira, lehen nolabait europar historia zehazterakoan aurreratu den bezala.

4.2.1. 7/1990, UZTAILAREN 3KO EUSKAL KULTURA ONDAREAREN LEGEAK ESKEINTZEN DUEN BABESAREN IZENDAPENA

Alde batetik, ondasunen kalifikazio edo sailkapena (zermugapena) adierazten da ondarearen babes neurri bat bezala aipatu 7/1990 Legearen 10. artikulua eta hurrengoetan, eta ondoren zerrendaketa 16. artikulua eta hurrengoetan.

a) Ondasunen sailkapena (zermugapena):

Aipatu 10. artikulua arabera ondoren zehaztuko diren ondasunek izango dute izaera hau:

“10.1. Euskal kultur ondareko ondasunak izan eta, duten garrantzi edo berebiziko balioetatik, babeste herri-zuduzko izan eta beraz horrela erabaki dadinekoak joko dira zermugatutako kultur ondasuntzat.

2. Honelakoetan, multzoaren osagarri bakoitzaren berarizotasuna nahitaez aldarrikatu beharrik gabe, multzo osoarena aldarrikatzea aski izango da.”

10. artikulua 2. paragrafoan adierazten denaren ondorioz, argi gelditzen da multzoen sailkapen edo zermugapen aukera.

Sailkatze edo zermugatze prozedura 11. artikuluan zehazten dela adierazi ondoren, nolabait zermugatze espedientearen edukia zehazterakoan (12. artikulua) honako adierazpen hauek egin behar dira:

* Hirigintza arauteria eta Lurralde Antolaketa arauteriaren arteko banaketa nahiko berria da, gero ikusiko denez, hau dela eta, batzutan hirigintza arauteria aipatzen denean garai horretan hitz hoiaren edukia barruan Lurralde Antolaketa zegoela adierazten da.

8. Juan Manuel Alegre Villa, “Evolución y régimen jurídico del Patrimonio Histórico”, Colección Análisis y Documentos- en, Ministerio de Cultura, 1994, 129. orr. eta hurrengoak.

9. Juan Manuel Alegre Villa, “Evolución y régimen jurídico del Patrimonio Histórico”, Colección Análisis y Documentos- en, Ministerio de Cultura, 1994, 41-320. orr.

Monumentu multzoen babesa lurralde antolaketa-aren ikuspegitik Euskal Autonomia Erkidegoan

– Monumentua edota Monumentu multzoa den zehaztu beharko da, besteak beste, 2.2. artikuloko dionaren arabera. Monumentu Multzoa bada, berebiziko garrantzia duten ondasunak zehaztuko dira.

– Ondasunaren edota bere osagai, eranskin, etab. -en deskribapen argi eta zehatza. Ondasun higiezinetan hauetatik bereizi ezin diren ondasun higigarrien erlazio bat ere ezarriko da.

– Ondasunaren mugapena eta bera babesteko edota balioa emateko beharrezko gertatzen den ingurunearen mugapen arrazoitua azalduko da, zermugatutako ondasunaren izaera izanik ingurunearen eremuak ere.

– Zermugatutako ondasunaren babes erregimen zehatza gauzatuko da, burutu litezkeen eta ezin litezkeen ihardueren adierazpenarekin.

b) Ondasunen zerrendatzea:

Honako ondasun hauek zerrendatuko dira:

“16. Art. Lege honetako 10. Atalean esandako garrantzia edo balioa izan ez arren, euskal kultur ondarearen osagai direnak joko dira zerrendatutako ondasuntzat eta, Lege honen zein hau osabideratuko duten manuen ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo-Sailaren menpe dagoen Euskal Kultur Ondarearen Zerrenda Nagusian errolderatuko dira.”

Nahiz eta Legeak multzoei buruzko aipamenik egin ez zerrendatzea aipatzean, babes modu hau orokorrean lehen aipatu den artikuloi jarraiki multzoak babesteko erabiliko da, zermugatze eta zerrendatzearen arteko desberdintasunak nabarituz.

4.2.2. ZERMUGATUTAKO ETA ZERRENDATUTAKO ONDASUNEN ARTEKO BABES DESBERDINTASUNAK

a) Espedienteak izapidetzeko orduan, prozedurari dagokionean dauden desberdintasunez gain, diferentziarik nabarmenena zerrendatutako ondasunek babes araupide berezi bat ez edukitzean datza. Izan ere, hau dela eta, 7/1990 Legeak zerrendatutako ondasuntzat orokorki aurrikusten duen babes araupidea aplikatuko da kasu hauetan.

Ondasun bat zermugatzean, egun indarrean dagoen 7/1990 Kultura Ondareari buruzko Legeak babes araupide zehatz bat gauzatu beharra dakar ondorioztat, eta lehenago zermugatua izan bada inolako babes araupiderik gabe, berri bat egin beharko zaio. Bereiziki babes araupide zehatz bat egiten ez den bitartean, aipatu Legeak zermugatutako Ondasunei orokorrean ezarritako babes araupidea aplikatzea izango du ondorio zuzena.

Zermugatutako ondasunen babes araupidean ezartzen diren zehaztapenak, gainera, gizarte interes moduan hartuko dira desjabetzapena justifikatu ahal izateko, zehaztapen hoiek betetzen ez badira 12.3 artikuloko dionez.

b) Ondasun hauek inskribatzen diren tresna erregistro edo zerrendak ere desberdinak badira ere, honek ez du garrantzia haundirik printzipioz.

c) Zermugatutako ondasunak aipatzean, bestalde, 7/1990 Legearen 12.2 eta 13 artikuluek oso zehaztapen interesgarriak egiten dituzte, zermugaketak Udal Plangintzan izan dezaketeten eragina adieraziz alde batetik, eta bestetik (eta zerrendatuei ere erreferentzia eginez) inguru-erasoen neurketa-biderapenetan burutu beharreko txostenak adieraziz.

“12.2. Ondasun bat zermugatuetaoetan sartzeak zermugapen horrek bere baitan duen babes-jaurpidea bertan behera eraginkor izatea eta Udal mailako Hirigintza-Egitamuketa egitea,

aldatzea do berrikustea eta, behar izanez gero, hori osabideratzea ekarriko du; guzti hori Eusko Jaurilaritzaren arioz, administrazio-mailako erakidetasun eta lankidetzara helburu izanik.

13. Zermugatutako eta zerrendatutako kultur ondasunetan zuzeneko nahiz zeharkako eragina izan dezaketen inguru-erasoaren neurketa-biderapenetan, gaitasunaren jabe izanezko Administrazioak beharrezko diren txostenak eskatuko ditu, txosten horietatik ateratako oharpen edo baldintzak inguru-erasoarekiko adierazpenan sartzeko.”

Honek, nolabait Kultura Ondarearen Legeriaren lehentasun edo bereizgarritasunaren berri ematen digu.

d) Babes araupide orokorrari dagokion artikulatuan ere hainbat diferentzia dago babes maila bat eta bestearen artean, baina gehien nabarmentzen dena hurrengo hau da:

“22.1. Art. Kultur ondasun bat zermugatuzeko zehaztapidetzari ekiteak, doakion ondasunarekiko, lege honetan zermugatutako ondasunentzako ohartemandako babes-jaurpidea behin-behingo-rako ezartzea ekarriko du. Era berean, eraginpeko aldeetan lur-zatiketak, eraikuntzak eta errausketak egiteko udal baimenak, baita lehenagotik emandakoen ondorioenak ere, bertan behera geratzea ekarriko du. Alde horietan ezinbestean eta geroagorako utzerik ez izaniko lanak egiteko, beti ere, dagokion Foru Aldundiaren baimena beharko da.”

Artikulo honen arabera zermugatutako ondasunen espedienteak haste hutsak babes bat ematen diela ondasun hoierei agerian uzten du, behin-behinekoa bada ere babes hori. Zerrendatutako ondasunei dagokionean, ordea, espediente osoa izapidetu artean babesik ezin da esan izango dutenik inola ere.

e) 7/1990, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 24.3 artikuloa, berriz, honako hau dio:

“24.3. Araudiz finka daitezen baldintzetan, Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo-Sailak onartutako egitarauz, edonork ikustekoak izan beharko dute zermugatutako kultur ondasunek. Beren legezko jabe-izendunek edo horiek dituztenek, barnekoiztasun, eta ohore-eskubidean eta funtsezko beste eskubide eta guztientzako jareipideetan, nahiz Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo-Sailak aintzat har litezkeen beste edozein arrazoitan oinarrituz, aski arrazoi badaudela adieraz dezatenean, kultur ondasunak eta horiek daudeneko aldeak edo horien osagaiak ikustekoak izan beharretik jare geldituko dira. Adierazitako arrazoiak, horretarako hasiera emango zaion administrazio bidez egiaztatuko beharko dira. Jare geratzeko arrazoiak araudiz garatuko dira.”

Zermugatzeak, ordea, baditu betebeharrak zenbait ere, hala nola ondasuna erakusgai eduki beharra, beste batzuen artean.

f) Eta ezin ahaztu 27. artikuloa xedatua:

“27. Autonomi Elkarteak, Kondaira-lurraldeak edo Udalak jabe dituzten zermugatutako kultur ondasunen, herri jaurgopeko jaurpidepean beste gabe babestuta geratuko dira, eta ondorioz, horien norakoa nahiz atzikipena dena dela, aldiak aldatu eta inorentzako ezinezkoak izango dira, eta nagusitzapeko ondasunei dagokienez zein balipide-jaurpidepean geratuko.”

4.2.3. MONUMENTU ETA MONUMENTU MULTZOEN ERREGIMEN EDO ARAUPIDE DESBERDINKETA

a) Eta Monumentu Multzoak duten erregimen edo araupidearen desberdintasun bat agertzearen 25.4 artikuloa azaltzea ere oso egokia da, nahiz eta honen edukia zermugatutako zein zerrendatutako ondasunei aplikatzen zaien:

“25.4. Banan-banan zermugatu gabeko monumentu-multzoetan sartutako ondasunak direnean, eskubide horretaz baliatu, multzoaren babes-jaurpidean txit garrantzizkotzat adierazi direnekiko soilik baliatu ahal izango da.”

Artikulo honetan tanteo eskubidea xedatzen da eta ondasun bakunetan zermugatutako eta zerrendatutako ondasun ororen salmentari badagokio izapidetza hau burutzea, monumentu-multzoei dagokienean berebiziko garrantzia dutenez, soilik legoke indarrean bete-behar hau.

b) Ondasun higieinei buruz 7/1990 Legeak egindako bereizketaren barne, eta ezaugarri hau kontutan hartutako hirigintza eta lurralde antolaketak gaiekin duten lotura nabarmena izanik, lehenik eta behin adieraztekoak honako artikulua hauek lirarteke, Monumentu bakun eta Monumentu Multzoak desberdinduz:

“28.1. Zermugatutako ondasun higieziakoak, babes-jaurpideari eta honi egokitu beharreko hirigintza-egitامتuketako egiterapideei atxikirik zaindu beharko dira, eta nolana ere, araudiz ezar daitezten baldintzetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren aldeko erizpena beharko dute.”

Berriz ere, Kultura Ondarearen araudiak duen lehenetsunaren adierazgarri den aipamen bat agertzen da Legearen edukian bertan. Eta hemen orokorrean ezarritakoa Monumentu eta Monumentu-Multzoentzat, guztientzat da aplikagarri, nahiz eta ondorengo paragrafoan zehaztapen bat egiten duen, segidan.

“28.2. Monumentu-Multzoei gagozkiela, babes-jaurpidea garatzeko hirigintza-egiterapideak onartzen ez diren bitartean, ez da oraingo lerroketa eta sestra aldaketarik onartuko, ez eta eraikigarritasunaf areagotzekorik edo eraldatzekorik, lur-zatiketak eta eransketak egitekorik, eta oro har, multzoaren egokitasunari eta euren teknikazko eta artezko konponbideei kalte eginezko bete-neurri, teilatu eta leihoen banaketako aldaketarik ere.”

“33. Lurralde eta hiri-antolakuntza egitamuetan eta/edo kultur ondasun delako aldarrikapenak hartzen duen aldea babesteko berarizko egitamuetan oharmandakoak izan eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren aldeko iritzia-aren gai izandako Monumentu-Multzoetan lanak egiteko baimenak Udalek artez emango dituzte. Aintzin-baimen edo baimen horien berri hamar eguneko epean eman beharko zaio dagokion Foru Aldundiari, eta baimenok berariz onartutako babes-jaurpidearen aurkakoak izatea gertatuz gero, horrek kalterik izandako ondasuna berriro jatorrizko egoeran uzteko agindua eman ahal izango du.”

Lehenik azaldutako paragrafoan Monumentu-Multzo eta hirigintza tresnen arteko harremanen lehen ikuspegi baten berri egon daiteke, Monumentu-Multzoaren ezaugarri bilakatzen diren elementuen babesa ziurtatzeko neurriak aurkeztuz. 33. artikulua, berriz, Monumentu-Multzoetan burutzen diren iharduketaren prozedura zehazten du.

Azken zehaztapen hau, baina Monumentu soil edo bakunei dagokienean, 7/1990 Legearen 29.1 artikulua ematen du:

“29.1. Zermugatutako ondasunetan eta hauen inguruan egin beharreko lanak, 33. Atalean oharmandakoak salbu, doakion Foru-Aldundiko gaitasundun ihardutze-sailek baimena ematearen menpe egongo dira. Aintzin-baimen hori udal baimena eman baino lehen eman beharko da. Erlijio-ekintzetarako kultur ondasunak izan daitezenean, erabilera horretarako beharrezko diren baldintzak kontutan izan beharko dira.”

29. artikulua-aren hurrengo paragrafo eta ondorengo artikuluetan zermugatutako eta zerrendatutako ondasunetan lanak burutzeko baimenak, erabilera baimenak, lanen egokitasuna, etab... xedatzen dira, 34. artikulua barne. Bestelakoan, 35. artikulua ezarri moduan exekuzio subsidiarioa ekarriko luke ondoriotzat.

c) 7/1990 Legearen 36. artikulua, guztiz garrantzitsua dena Kultura Ondarearen legeria-aren barnean, kasu honetan zehazki, interesgarri bilakatzen da, tanteo eskubidearen kasuan bezala, Monumentu eta Monumentu-Multzoen artean egiten duen bereizketa dela medio. Horrela dio bere lehen paragrafoak:

“36.1. Aurrez ondamen-egoeran daudela aldarrikatu eta dagokion Foru Aldundiak –honek doakion Udalaririk iritzia eskatu beharko dio gainera– berarizko baimena eman gabe, ez da zermugatutako kultur ondasunik eta zerrendatutakorik botatzerik izango. Nolanahi ere, ezinbesteko baldintza izango da Eusko Jaurlaritzak zermugatutako kultur ondasun izatetik kentzeari buruz alde aurre baimena ematea; horretarako, 6. Atalean oharmandakoaren arauera, dagokion aholkaritza-sailari nahitaezkoa izango den txostena emateko eskea egin beharko zaio. Era berean, zerrendatutako ondasunentzat zein Monumentu-Multzotzat zermugatutakoaren sartzen diren banakako ondasunentzat, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren erabakiz –honek ere, dagokion aholkularitza-sailari, nahitaezkoa izango den txostena eskatu beharko dio–, horiek ondasun izatetik kentzea beharrezko izango da.”

4.2.4. ARKEOLOGIA ONDAREAREN ERREGIMEN EDO ARAUPIDE BEREZIA

Arkeologia ondareari dagokionean, eta nahiz eta oso erreferentzia xumea egiten zaion paleontologia ondareari dagokionean ere, atalburu berezi bat aurkezten da, gaiaren berezitasunak ahalik eta hobekien zehaztu daitezzen.

Arkeologi ondasunak aipatzerakoan arkeologia guneak berebiziko garrantzia dute. Gune hauek 7/1990, Kultura Ondareari buruzko Legearen 44. artikuluan definitzen dira, gune bateko ondasun higigarri zein higiezinak aztertzeo arkeologiaren metodologia beharrezko gertatzen den kasua izanik hauek.

Arkeologia gune hauek multzo izaera beraiekin dute.

Babes araupide berezi honetan babes erregimen orokorrean adierazitako desberdintasunez gain zermugatu zein zerrendatutako ondasunen artean ez da beste diferentzia nabarmenik ageri.

Izan ere, zerrendatu eta zermugatu gabe, interes arkeologiko zein paleontologikoa edukitzea nahikoa da ondasun horrek babes oinarritzko bat edukitzeko: jabari publikoa izatea, 7/1990, Euskal Kultura Ondarearen 47. artikulorekin arabera. Ondoren ondasun hauek zerrendatu edota zermugatuz gero, babes hori zehaztu eta hareagotzea besterik ez da egiten.

Babes erregimen berezi honetan agertzen diren beste artikuluetan ondasun zerrendatu edota zermugatutako ondasun arkeologiko eta paleontologikoetan egin beharreko iharduketen nondik-norakoak agertzen dira, baimenak, Administrazioaren exekuzio bideak, etab...

Hemen beste aipamen batzuk egitea komeni da: ustekabeko aurkikuntzen eta bilketari buruzko araudia hemen zehazten dela alde batetik, eta bestetik 49. artikuluan aurrikusten diren balizko edo ustezko arkeologia guneen babes erregimenaren zehaztapena, zeinak garapen juridikoa izan baitu 1996ko azaroaren 11ko Dekretu bat medio.

4.3. Arkitektura izaeradun Monumentu-Multzoen Babes Erregimen edo Araupide zehazten sailkapena

Arkeologia eta Paleontologia izaeradun Monumentu-Multzoen garrantziaz ahaztu gabe, eta egun juridikoki ematen ari diren zenbait aldaketa direla eta interesgarri bihurtzen dutenez gaia, arkitektura izaeradun Multzoetan sakontzea erabaki da batipat, nahiz eta aipamen murriz bat egingo den aipatutako beste arlo hoietaz ere.

7/1990, uztailaren 3ko, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen testuingurutik Monumentu-Multzo baten barruan maila eta balio desberdinetako elementuak egon litezkela erartzen bada ere, bertan ez da inolako zehaztasun edo erreferentziarik ematen babes erregimen zehatz bat egiterakoan erizpide finko batzuk jarraitu ahal izateko. Urteak joan eta urteak etorri babes erregimen zehatz hoiengandik idazketak finkatu ditu erizpideak, Kultura Ondarearen Babespenean jardunak markatu du bidea.

28/1997 Dekretua, otsailaren 11koak, Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpediak behin-betiko onartzen dituenak (aurrerantzean LAA), bere 17. puntuan, zeinak Kultur Ondarearen Antolamendua baitu izenburu, bere 4.2.3. atalean babes mailakaketa bat egitean, ordea, ordurarte erizpide soilak zenari beste ofizialtasun bat eman dio.

Hain zuzen ere, honako elementuok osatzen dute mailakaketa hori:

- a) Babes bereziko elementuak. "Kultur Ondasun Kalifikatutzat (**) aitortutako edo beren balio arkitektoniko, artistiko, historiko edo kulturalengatik halakotzat aitor daitezkeen higiezin eta elementu hiritarrak dira". Egun, lurralde antolaketako eta hirigintzako tresnei buruzko txostenak egitean 214/1996 Dekretuaren esanetan eraberritze zientifikoari dagozkion iharduketak soilik burutu ahal izango dira ondasun hauetan.
- b) Erdi-mailako babeseko elementuak. "Ondasun Inbentariatutzat (**) aitortutako higiezinak edo kategoria horretara asimilatze moduko balioak dituztenak. 214/1996 Dekretuaren arabera, ondasun hauetan burutu litezkeen iharduketak bertan mantentze eraberritzeak soilik izango lirateke, A eta B modukoak soilik.
- c) Oinarrizko babeseko elementuak. "Balio nabarmenik izan gabe, tipologiaren edo ingurugiroaren ikuspegitik ondare-interesa dutenak". Hauek nolabait udalerrri mailako garrantzia eta gune konkretu baten testuinguruari egiten diote erreferentzia, nolabait elementu hauen babes Udalen esku utziko litzateke beti ere ezaugarri hauek babestuz 214/1996 Dekretuaren arabera aipatze eta erreforma iharduketak baimenduz.
- d) Elementu ordezkagarriak. "Baliorik ez dutelako ordezkaria daitezkeenak, beti ere eraikuntza berria lehendik zegoen multzoan integratu eta bateratzen bada". Xede horretarako hainbat zehaztapen ezartzen dira Babes Erregimenetan.
- e) Bat ez datozen elementuak. "Bere inguruneari egokitzen ez zaizkionak". Elementu hauek multzotik kentzeari ekin behar zaio, multzoaren izaera baliozuen kalte egiten diotelako.
- f) Hiri-espazioak. "Espazio eraiki gabekoak, herritarren erabilera nahiz ez, hirigune historiko baten hiri-egitura osatzen dutenak, eta ondokoak direnak; kaleak eta kantoiak, plazak eta parkeak, patioak eta karkabak". Hauek Hirigune Historikoaren berezko trama eta lerroak errespetatzen diren heinean hartzen dira kontutan.

Hemen zehaztu diren babes maila hauek, eta hauei dagozkien iharduketak gutxienezkoak lirateke, Udalen sentiberatasunaren arabera neurri zorrotzagoak har litezkeelarik, beti ere planeamendu tresnen bidez.

Abiapuntu moduan LAA azaldutako mailakaketa hau, ordea, eta egun praktikak erakutsi dituen hainbat arazo gairiditzearen, berriz ere jardunak aldatzeari ekin dio, nahiz eta oinarri finkoenak mantentzen diren. Lehengo puntu hoiak gutxi gora behera mantentzen badira ere, hona hemen momentu honetan Monumentu-Multzoetan ezartzen diren mailakaketaren aldaketak:

– Elementu ordezkagarrien ordezkaria, baliorik gabeko elementuak azaltzen dira, nahiz eta hauen araupidea lehengoaren berdintsua izan.

– Babes partziala gehitzen da, baliorik gabeko elementu batetan balioa duten osagai batzuk egon litezkeela onartuz eta hauentzat babesaren zehaztasunak.

** Kalifikatu eta Inbentariatu hitzek zermugatu eta zerrendatu hitzen esanahi bera dute, hau kontutan hartuz, testu juridikoetan terminologia desberdintasuna dela eta aipatzen dira bi esamoldeak.

– Bat ez-etortze partziala gehitzen da, baliodun elementu batetan, beronen kaltetan, bat ez datorren osagai bat egon litekela onartuz eta ondorioz hau ezabatzeke neurriak ezarriz.

– Babes morfologikoa gehitzen da, hirigune historikoaren trama osatzen duen partzelazioa babestuz, nahiz eta bere gainean aurkitzen den eraikinak baliorik ez izan.

Aldaketa hauen ondorio zuzenetako bat zera da, askoz ere ikerketa sakonagoa egitea galdatzen duela multzoen elementuetan. Oraindik pare bat espediente soilik garatu izanik mailakaketa honen menpe, ezin da esan zer nolako ondorioak izango dituen. Badirudi nolabait hiriguneen bizia ziurtatu eta erregeneratzeko asmoz malgutasun haundiagoz jokatu nahi izan dela, beti ere, hirigunearen balioa kaltetan jarri gabe.

4.4. Arkeologia eta Paleontologia izaeradun Monumentu-Multzoen Babes Erregimen zehatzen sailkapena

Aurreko puntuan agertu moduan, arlo honetan ere jardunean burututako Babes Erregimen zehatzek ezarri izan dituzte Monumentu-Multzoen babes mailen erizpideak, behin LAAk bere 17. Puntuko 4.3.3. atalean zehaztu arte.

– Arkeologia alorrean honako babes mailak bereizten ditu aipatu testuak:

- a) Arkeologi erreserba. "Maila hau emango zaie bertan eskuhartzerik egin behar ez den eta indusketarik egin gabe kontserbatu behar diren arkeologi aztarnategiei. Izan ere, etorkizunean bidezkotzat jotzen denean egingo da indusketa".
- b) Babes zorrotza. "Maila hau Kultur Ondarearen testuinguruan bakarrak diren eta kasu jakin batzuetan desagertzeko arrisku handia duten adierazgarri aplikatuko zaie batik bat. Babes-maila hau ematen zaien Ondarearen elementuen kokaera alda dezakeen edozein giza iharduera ia erabat murriztuta geratzen da. Ikerketa-iharduerak eta zientzi izaerako beste erabilera batzuk baino ez dira baimenduko. Programa zehatzak diseinatuko dira elementu hauek babesteko".
- c) Kontserbazioa. "Arrasto nabarmen samarrak dituzten edo Euskal Autonomi Erkidegoko arkeologi panoramaren barruan adierazgarri esanguratsuak diren interes bereziko aztarnategi edo elementuei emango zaie maila hau. Ez da baimenduko kontserbatu beharreko elementua narria dezakeen iharduerarik, egiturak finkatu eta zaharbertzera zuzendutakoak izan ezik. Ahal denean, arrasto hauek kokaturik dauden hiri edo landa-egituran integartzeko ahaleginak egingo dira, beti ere integrazio horrek kontserbatu beharreko kultur ondasunaren funtsezko aldaketarik ez badakar. Kultura, turismo eta atsedan-iharduerekin zerikusia duten erabilerak bultzatuko dira."
- d) Babesik gabekoak. "Babesik gabe geratzen dira balio nabarmenik ez duten ondare-elementuak, baldin eta arkeologi iharduketak kontrakarrik adierazten ez badu. Maila hau eman baino lehen, elementu hauetan arkeologi iharduketak egin beharko dira (indusketa, zundaketa eta abar), desagertu egin daitezkeen adierazgarri hauek zehatz-mehatz erregistratu eta dokumentatzeko. Azkenik, aztertutako elementuari buruzko Txosten xehatua aurkeztuko da."

Puntu honetan zerbait gehitzekotan, balizko edo ustezko arkeologia guneei erreferentzia egin beharra adieraztea litzateke egokiena. Baina, egokiena kasu honetan, lehen adierazi den moduan 7/1990, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 49. artikulua garapen moduan idatzitako 1996ko azaroaren 11ko Dekretua aipatu behar.

– Paleontologia ondareari dagokionez, gaia oraindik sakontasun gutxiagorekin aztertua izan dela adierazi behar, eta momentuz Monumentu-Multzo moduan babesturiko kasu baka-

rra dagoela Autonomia Erkidego honetan. Hain zuzen ere, kasu hori 1998ko irailaren 22ko Dekretu bidez babesturiko Urizaharra-Peñacerradako anbarrena litzateke. Kasu berezi-berezia izanik hau, babes erregimena ere modu horretakoa dela adierazi behar. Lehenagotik erizpide jakinik ez zegoen eta kasu honen berezitasuna kontutan harturik babes mailakaketa bat burutzea ezinezko gertatzen da momentuz, irizpide moduan bada ere.

5. ONDASUN HIGIEZINEN MONUMENTU MULTZOAK ETA LURRALDE ANTOLAKETARI BURUZKO LEGERIA

5.1. Hirigintzatik Lurralde Antolaketara¹⁰

Hirigintza plangintza XIX. mendeko bigarren erdialdeko Lege sektorizatuen ondorioz garatutako tresna bilakatuko da eta hiria erregulatzeko saiatuko da.

II. Mundu Gerratearen berreraikpenaren ondoren garapen ekonomiko eta soziala etorri da, Estatu Batuetan 40. hamarkadan eta Europan 50. ekoan. Ondorengo hamarkadatan ere zabalkundea nabaria izango da populazioaren hazkuntza kontutan hartuz eta lurraldearen azalera hein handi batean eraikitzen.

Gauzak horrela, eman diren lurralde aldaketak era antolatu batean proiektatu beharra ikusi zen, plangintza izanik horretarako ere tresnarik egokiena garai hartako jakitunen ustez.

Ingalaterran "Town and Country Planning Act" eta "Land Compensation Act" tresnak indarrean jarri ziren 1959. eta 1961. urtean. Ondoren, 1962ko Hirigintza Legearen arabera, Udalak beraien lurraldearen garapenerako plan bat gauzatzera behartzen dira eta 1963. urtean hiri plangintzarako organo zentral bat eratzen da, alor hau eragiten duten beste batzuekin harreman hestuetan izanez (garraioa, herrilana eta Udala Administrazioa). Horrela kokapen berriak sortzen dira, baina beti ere, azterketa sakon eta orokor bat burutu ondoren eta udalaren gainetik dagoen eremu bat kontutan hartuz honek sortzen dituen harremanekin beste hainbat sektoreri dagokionean.

Xede berarekin, Frantzia 1958. urtetik aurrera hainbat neurri hartuko dira, horrela, 1961. urtean lehen plangintza agentzia eratuko delarik bertan eta 1963. eta 1965. urteetan lurralde plangintza erakundeak.

Alemanian Udalek izango dute hiri plangintza burutzeko eskuduntza, baina lurralde plangintza Länder- en menpe geldituko da, hauetako batetik bestera desberdintasun handiak egonik gai honen eraentzan.

Eskandinaviar herrialdeetan Copenhage (1961) eta Estocolmo-ko (1966) hirigintza planak lurralde mailara zabalduko dira.

Holandan, Zuiderzee-aren dreinaia lurralde berri batean kokatzeko aukera ematen du.

Bestalde, Ekialdean aurrikusita zeuden kokapenak gauzatu dira. Polonian, ordea, 60. hamarkadan, lurraldearen antolaketak oso bati ekiten zaio, baina mundu mailan hain interesgarri erizpideko proiektua 1980. urtean iraungia izan zen 1980. urte bereko krisi politikoa medio.

Italian, bestalde, hirigintza legeen berrikuspen proiektuak burutzen ari dira eta 1970. urtean nazio mailako programaketa bulego bat eratzen da "Proyecto 80" deritzon proposamen bat aurkezten duelarik, nazio osoko lurraldearen sistematizazioa azalduz. Halere,

10. Leonardo Benévolo, "historia de la arquitectura moderna", Editorial Gustavo Gili, S.A., 1994ean, 964-991 orr.

ordurarteko inertiak geldiarazirik du lan hau praktikan. Esan behar da, halere, 1942. urtean, lehen Hirigintza Lege orokorra argitaratu zela. Lege honetan eremu desberdinak hartzen zituzten planen jerarkia ezartzen zen.

Estatu Batuetan lurralde antolaketa kultura mundua eta baita ikerketa mundua ere alor honetan oso azkar interesatzen da, baina beren ekonomia eta administrazio egitura ez da batere malgua bertan esperientzia hauek garatzeko.

Hemen ere egoki erizten da Le Corbusier maisuak Hirigintza Printzipio gisa finkatutako zenbait eritzi, Atenas-ko Gutuna deritzona osatuz: a) lehenik eta behin, hiria lurraldean osatutako ekonomia, giza eta politika elkartearen zati bat besterik ez dela dio, unitate administratibo oso gutxitan egokitzen zaiolarik unitate geografikoari. Hiriaren plana lurraldeko plana osatzen duen elementu bat besterik ez da ondorioz. b) Hiria unitate funtzional bat da¹¹.

5.2. Hirigintza eta Lurralde Antolaketa buruzko arauteria Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionean

Hasera batetatik bi legerien (Kultura Ondarea eta Hirigintza/Lurralde Antolaketa) arteko harremana nolabait finkatzearen, gaur egun inolako zalantzarik ez dagoela azaldu beharra dago Euskal Kultura Ondarearen gailentasuna finkatuz hainbat epaiek Estatu mailan finkatutako jurisprudentzia jarraituz¹².

Bestalde, hirigintza eta Lurralde Antolaketa arloan mugitzen den edonork daki egungo egoera juridikoa oso nahasia dela eta hainbat lege eta arau daudela momentu honetan, eskumen arazoak tartean direlarik. 1997ko martxoaren 20ko Konstituzio Epaitegiak emandako epaiak momentu hartaraino Estatu Espainiarrak erregulaturiko hainbat gai Autonomi Erkidegoen eskumenekoak zirela aldarrikatu zuen, gerora hainbat aldaketa jasan direlarik bai Espainiar eta bai Euskal Autonomi Erkidegoko mundu juridikoan.

5.2.1. 4/1990, MAIATZAREN 31KO, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKUNTZARI BURUZKO LEGEA

Hau da Euskal Autonomi Erkidegoan lurralde antolakuntza tresnak finkatu zituen Legea, bere bigarren atalean honako tresna hauek zehaztu zituelarik:

- a) Lurralde-Antolakuntzarako Artezpideak.
- b) Lurraldearekiko Zati-Egitamuk.
- c) Lurraldearekiko Alor-Egitamuk.

Lehen zehaztapen hau egin ondoren, tresna bakoitza zehaztu eta egun, tresna hauen bilakaera praktikoa aztertuko da orokorrean.

- a) Lurralde-Antolakuntzarako Artezpideak.

4/1990 Legearen 4. artikuloren arabera honako hau litzateke tresna honen definizioa: "Euskal Autonomi Elkartearen Lurralde-Antolakuntzarako Artezpideak izango dira Lege honetan araupetzen diren gainerako antolabideak aurkezteko abiapuntu nagusi, eta halaber lur-jaurpideei buruzko legeetan oharmandako antolakuntza-egitamentzat ere, lege horiei egokitu

11. Le Corbusier, "Principios de Urbanismo (La Carta de Atenas)", Planeta Agostini, 1993an, 21 eta 128 orr.

12. Juan Manuel Alegre Villa, "Evolución y régimen jurídico del Patrimonio Histórico", Colección Análisis y Documentos- en, Ministerio de Cultura, 1994, 25-104. orr.

beharko bait zaizkie beti ere Herri-Administraritzaz ezberdinek, direla autonomiazko, foruzko zein toki mailakoak, bakoitza bere eskuduntzez baliatuz, gara ditzaten eta lurraldean eragina izan dezaten egitamu, egitarau eta ekintzak.”

Lurralde Antolaketarako tresna hau definitu ondoren, zera aipatu behar, egun 28/1997, otsailaren 11ko, Euskal Autonomi Elkarteke Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin-betiko onartzen dituen Dekretuz onetsia izan dela, eta EHAAn argitaratua 1997ko otsailaren 12an.

Tresna honen ikuspegi juridikoa nolabait garatu nahian, eta tresnen arau izaerari buruz dauden ikerketak albo batetara utziz, LAAK bere 22. puntuan ezarritako “LAAak Aplikatzeko Arauak” aipatuko dira. Izan ere, bere 2.1 atalean, zeinaren izenburua “Ohar Orokorrak” baita, LAAren afekzio-tipologia finkatzen da ondorengo modu honetan:

- a. Zehaztopen lotesleak, zuzenean aplikatzekoak.
- b. Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planentzako zehaztopen lotesleak.
- c. Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak idazteko irizpideak eta iradokizunak.
- d. Arloko Administrazioentzako orientabideak eta erreferentzia puntuak, beren iharduketa zuzenean nahiz Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planen idazkuntzaren bitartez egiten badute.
- e. Udal Plangintzaren idazkuntzarako irizpideak.
- f. Irizpide, erreferentzia eta iharduteko jarraibide orokorrak.

Afekzio tipologia zabal hau kontutan harturik, ikastaroan bertan ere zalantzan jarri izan da benetako LAAen Legezko izaera.

Baina zalantza horri aipamen xume hau egin ondoren, komenigarria litzateke Kultura Ondareari buruz zer-nolako afekzio tipologikoa duten LAAK zehaztea:

– Kultura Ondarearen puntuko 4.1.5 a), 4.2.6., 4.3.5. eta 4.3.6. ataletan LAAK Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planen idazkuntzarako irizpideak eta orientabideak emango ditu.

– Kultura Ondarearen puntuko 3, 4.1.2., 4.1.4.a), 4.2.2., 4.3.3., 4.3.5. eta 4.3.7. ataletan Arloko Administrazioentzako orientabideak eta erreferentzi puntuak emango ditu, beren iharduketan zuzenean nahiz Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planen Idazkuntzaren bitartez burutzen badute ere. (Hemen sartuko litzateke lehen aipatutako arkeologia babes mailen sailkapena).

– Kultura Ondarearen puntuko 3, 4.1.2., 4.1.4., 4.1.5., 4.2. eta 4.3. ataletan Udal Plangintzarentzako orientabideak eta erreferentzi puntuak ezartzen ditu.

– Eta azkenik, LAA III. zatian kokaturik egotean Kultura Ondareari dagokion puntua, honek irizpide, erreferentzia eta iharduteko jarraibide orokorrak adieraziko ditu, aipatu gabe gelditu diren Kultura Ondarearen puntuko atalei dagokienean. (Arkitektura izaerako Monumentu-Multzoetan egindako babes mailaren sailkapena hemen egongo litzateke).

Puntu honetan aurrera joan ahal izateko, LAAk duten edukiaren garrantzia ikusirik, 17. Puntua aztertzea komenigarria litzateke, nahiz eta lan horretan aurrera jarraitzea irakurlearen esku utziz.

b) Lurraldearekiko Zati-Egitamuak.

4/1990 Legearen 11. artikuluan definitzen da Lurralde Antolaketarako tresna honen kontzeptua:

“Lurraldearekiko Zati-Egitamuek Lurralde-Antolakuntzako Artezpideak osabideratuko dituzte hauek mugatzen dituzten eta udal batenak baino gehiagorenak diren alor edo aldeei dagozkienetan, horietako bakoitza antolatzeko Artezpidetik ezartzen dituzten berarizko erizpideak zehaztuko dituztela”.

LAak jarraituz Eskualde Egituren Mugaketa burutu izanik, egitura bakoitzak Zati-Egitamu bat idatzi beharko du, alor honetan Kultur Ondareari dagokion babesa ziurtatu beharko duen larik bai 7/1990, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearekin edukiari jarraiki, baita Kultura Ondarearen legeriaren gailentasuna adierazi duten hainbat epaien arabera ere.

Gaur egun, datuetan okerrik ez badago Bilbo Metropoliak osatzen duen Eskualde Egiturak du onetsirik haserako izaeraz bere Zati-Egitamua, nahiz eta beste eskualdeetan ere lan taldeak lanean diharduten.

c) Lurraldearekiko Alor-Egitamua.

4/1990 Legeak 16. atalean finkatzen du Lurralde Antolaketa- tresna honen edukia:

“16.1. Eusko Jaurlaritzako Sailek gertatu eta lurraldean eragina izan dezaten egitamuak, Lurraldearekiko Alor-Egitamutzat hartuko dira eta Eusko Jaurlaritzak erabaki dezanean aurkeztuko dira.

2. Lege honen ondorioetarako, Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailek gertatu eta onartu ditzaten egitamuak ere izaera berekoak izango dira.”

Kasu honetan, LAak bere 17. puntuko 4.1.1. atalean honako hau dio:

“Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Kultur Ondareari buruzko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana landuko du.”

Hau ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila aipatu Lurralde Antolaketa- tresna hori paratu nahiean dabilela jakina da horretarako 1998ko udaran kontratupeko eskeintza bat argitaratu delako EHAA hori idazteko talde bat hartzeko asmoz.

6. ONDASUN HIGIEZINEN MONUMENTU MULTZOEN BABESA FRANTZIAN

Hirigintza politikan ikuspegi marginal batetik eraman izan da Frantzia ere Monumentu Multzoen babesa.

Malraux Legeak 1962. urtean, “Secteurs Sauvegardés” deritzonak sortu zituen eta “Plans de Sauvegarde et mise en valeur”- ak martxan jarri. Kultura Ministeritza izan zen programa hau garatzearen erantzule, beste hainbat sailen parte hartzearekin (Ogasuna, Barne Saila, etab...).

Iharduketa prozedurak desberdinak izango dira objektua publikoa edo pribatua denaren arabera.

Bere garairako nolabaiteko kezka aurkeztu zuen proiektu hau ez zen, ordea, oso arrakastatsua izan, 1975. urtera bitartean 58 sektore soilik gauzatu baitziren Frantzia osoan, 500 en bat multzo zeudela jakinik premia larrian. Beste arazo bat lehen aipatutako plangintza eta hirigintza tresnen arteko koordinazio falta izan zen.

Egun beste herrialdeen antzera babes hau hirigintza tresnen bidez ematen saiatzen da Frantziar Administrazioa, baina beti ere administrazio horren zentraltasuna nabarmenduz, horrek sorrarazten dituen desfaseak ondorioztatu daitezkeelarik.

7. ONDORIOAK

Momentu honetan argi ikusten dena zera da, Multzoen babespena Lurralde Antolaketa tresnetara igaro dela, baina Multzoak berak momentuz nahiko mugatuak direla hirigune historikoak soilik babesten baitira, industria ondaretik eratorritako multzoak oso urriak izanik.

Multzoen objektua, nolabait zabaldu egin beharko litzateke.

Bestalde, oraindik ere Lurralde Antolaketa Tresnen eta Kultura Ondarearen legeriaren arteko harremanak berriak izanik, hauek garatu eta hobetzea ere ezinbestekoa litzateke.

ERABILITAKO ARAUTERIA ETA BIBLIOGRAFIA

1. Arauteria

- 1) 7/1990, uztailaren 3ko, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea.
 - 2) 4/1990, maiatzaren 31ko, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea.
 - 3) 1978ko Espainiar Konstituzioa.
 - 4) 3/1979, abenduaren 18ko, Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren Lege Organikoa.
 - 5) 1983ko azaroaren 25eko Eusko Legebiltzarreko Legea (LTH).
 - 6) 1/1992, ekainaren 26ko Lurzoruaren Legea.
 - 7) 1346/1976, Lurzoruaren Testu Bateratuaren Errege Dekretua.
 - 8) Kode Zibila.
 - 9) 28/1997, otsailaren 11ko Euskal Autonomi Elkartearen Antolamendurako Artezpideak behin-betiko onartzen dituen Dekretua.
 - 10) 7/1990 Legearen 49. Artikulua garatzen duen 1996ko azaroaren 11ko Dekretua.
 - 11) 214/1996 Dekretua, eraikinetan burutu litezken iharduketak xedatzen dituena.
- 17/1991, 1991ko urtarrilaren 31ko Konstituzio Auzitegiaren Epaia.

2. Bibliografia

- BENÉVOLO, Leonardo, "historia de la arquitectura moderna", Editorial Gustavo Gili, S.A., Barcelona, 1994.
- ALEGRE VILLA, Juan Manuel, "Evolución y régimen jurídico del Patrimonio Histórico", Colección Análisis y Documentos- en, Ministerio de Cultura, 1994.
- LE CORBUSIER, "Principios de Urbanismo (La Carta de Atenas)", Planeta Agostini, Barcelona, 1993.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, "Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak", Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 1997ko ekaina.
- Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo, "La Política de Rehabilitación Urbana en Italia", Coplaco, Documentos de Trabajo, Madrid, 1980.
- Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo, "La Política de Rehabilitación Urbana en Francia", Coplaco, Documentos de Trabajo, Madrid, 1980.